

Prensa oharra

Nota de prensa



Intxaurralde Zahar Etxeak ia 500 m2-ko lokal berria du

Intxaurrondoko Zarategi pasealekuko instalazio berriek ia milioi erdi euroko inbertsioa izan dute

Intxaurrondo auzoak instalazio berriak ditu gaurtik aurrera Intxaurralde Zahar Etxea hartzeko, 486 m²-koa eta erabiltzaileen beharretara egokitua. Donostiako Udaleko Gizarte Ekintza eta Etxegintza sailen arteko lanari eta lankidetzari esker egin ahal izan da egoitza berria. Sail horiek lokala egokitu eta Intxaurralde Elkarteari utzi diote, kudea dezan, 480.634 euroko inbertsioa eginez.

Instalazio berri hauek Etxegintzak Monsen eraiki dituen apartamentu dotazional berrien behealdean daude, eta hauei ezker Intxaurrondo auzoan adinekoentzako zerbitzu berriak egongo dira, hala nola taberna-jangela, ile apaindegia, higiena eta oinak eta eskuak edertzea edo kanpoko terraza erabiltzea. Orain arte, elkarteak ezin izan ditu zerbitzu horiek eskaini, Txarako aurreko instalazioetan lekurik ez zegoelako.

Izan ere, Zarategi pasealekuko 66. zenbakian dagoen lokalak jardueretarako bi areto zabal ditu, bakoitza 50 m² baino gehiagokoa, batzarrerako bulegoa, ile apaindegia, bilera gela, sukaldea, jangela eta taberna-kafetegia, baita hall-a, komunak, aldagelak, biltegia eta beste espazio batzuk ere. Dependentsiek 284 m²-ko terraza handi bat ere badute, erabiltzaileen gozamenerako.

Eneko Goia alkateak azpimarratu duenez, “horrelako lokal bat sortzea Udalak adinekoen kolektiboari egiten dion balorazioaren erakusle da, haien beharretara egokitutako espazioak eskainiz eta Zahar Etxeen sarea indartuz, gure gizartean ezinbesteko lana egiten baitute”.

Intxaurralde pentsiodunen eta erretiratuaren elkarteak kudeatuko ditu bulego berri horiek. Elkarteak 300 bazkide ditu (213 emakume eta 87 gizon), eta oso erakunde aktiboa da Intxaurrondon. 65 urtetik gorako 3.185 pertsona daude auzo horretan, Zahar Etxearen erabiltzaile potentzialak direnak. Beraz, aurreikusten da bazkideen kopurua nabarmen egingo duela gora, lokalak erritmoa hartzen duen heinean.

Intxaurralde elkarte

Elkartea 1987an sortu zen, eta gaur egun adinekoen zuzendutako hainbat jarduera antolatzen ditu; prebentziozkoak (gimnasia, memoria, pintura, lanak...), kulturalak (bidaiak eta txangoak) edo dibertimendukoak (gizarte jolasak, laurogei urteko pertsonen omenaldiak, bingoa...). Azken horien artean nabarmentzekoa da auzoko estalitako petanka pistan egiten den jarduera, elkarteko kide batek koordinatuta, egunean 20 pertsona inguru mugitzen dituen, urteroko txapelketa bat ospatzeaz gain. Lokal berri

Prensa oharra

Nota de prensa



honen eraikuntzarekin, elkarteko batzarrak Zumba, Yoga eta Tai-chi bezalako jarduera berriak gehitzea ere baloratzen ari da.

Intxaurraldek parte hartzen du, halaber, *#DeMayoraMayor* ekimenean, El Salvadorren adinekoentzako egiturak eta espazioak sortzen laguntzen duena, hemengo eta hango adinekoen artean loturak sortuz. Solera aldizkaria ere argitaratzen du elkarteak, hiru hilean behin argitaratzen dena, bazkideek edo kolaboratzaileek idatzitako artikulua jasotzen dituen eta elkarteak bazkideei eta hainbat erakunderi postaz bidaltzen dizkiena.

Goizaldiak

Lokalean aurreikusten diren zerbitzu berrien artean, **Goizaldiak** adineko ahulen eguneko arretarako udal zerbitzua ere dago. Instalazio berri hauetan martxan egongo da udaren amaieratik aurrera, astean hiru egunetan, 10:00etatik 13:00etara. Horrela, zerbitzu hori duten auzoen kopurua handitzen jarraitzen da, dagoeneko Egia, Bidebieta, Altza eta Grosen baitago (guztira 38 erabiltzaile izan ditu 2021ean), eta laster Erdialdera, Antiguara eta Amarara ere iritsiko da.

Goizaldiak eguneko arreta zerbitzuaren helburua da adineko ahulen autonomia mantentzen laguntzea, pertsona horiek beren ohiko ingurunean bizitzen eta gizarteratzen laguntzea, eta, hala badagokio, isolamendu egoerak konpentsatzea. Zerbitzua hainbat zentrotan eskaintzen da eta haietan hainbat talde jarduera egiten dira, bizi kalitatea hobetze aldera, zahartze aktiboa sustatzeko eta harreman sozialak izateko beste zenbait jardura ere.

Zahar Etxeak

Udalak adinekoen elkarteak funtsezko eragile komunitariotzat jotzen ditu adinekoen laguntzeko orduan, funtsezkoak baitira zahartze osasungarria sustatzeko, eta gobernu taldeak helburu hori du.

Horregatik *Donostia Lagunkoia Hiri Planak* Zahar Etxeak Plan horren 3. ardatza garatzeko ezinbesteko baliabideetat hartzen ditu. Pertsonak zaintzen dituen hiri izan nahi du Donostiak, eta ildo horretan, Zahar Etxeak komunitate osoari zabalduko gune bihurtzea lortu nahi dugu, pertsonen elkar topatzea erraztuko eta elkarlana eta jarduerak aurrera eramatea sustatuko dutenak. Hori dela eta, Udala lanean ari da Zahar Etxeak hobetzeko eta hiri osoan sarea egiteko.

Donostia, 2022ko apirilaren 29a